**Vitoria-Gasteizen, 2012ko urtarrilaren 23an**

**Gaia: Garraio zerbitzuaren promozioa/segurtasuna** *Promoción/seguridad del servicio de autobús*

**Familia agurgarriak:**

**Eskuartean ditugun datuen arabera, garraio-zerbitzua erabiltzen ez duten familien taldekoak zarete.**

**Auto-ilara luzeak dira gure inguruko errepideetan, eta uste dugu zuek ere jasango dituzuela eragozpenak; ikusi ere ikusiko zenuten zenbat arrisku bizi duten zuen seme-alabek. Gaur egun ezinezkoa da arazo horiek erabat konpontzea. Horregatik bidaltzen dizuegu ohar hau, hausnar dezazuen garraio-zerbitzua erabiltzearen inguruan.**

**Ez dakigu zergatik ez darabilzuen garraio-zerbitzua, baina ohar honen bidez gogorarazi nahi dizuegu zerbitzu honek badituela erabilera-baldintza batzuk, eta ez dela ezinbestekoa egunean lau bidaia egitea, eta, are gehiago, norberak dituen beharretara egokitu daitezkeela ibilbideak eta geltokiak, betiere aurrez hitzartuta.**

**Garraio-zerbitzua ez erabiltzeko arrazoia baldin bada guk zerbitzua eskaintzen ez dugun toki batean bizi zaretela, jar zaitezte, inolako zalantzarik gabe, garraioa@olabide.com helbidearekin, denon artean saia gaitezen irtenbiderik onena lortzen.**

**Lerro hauek baliatu nahi ditugu zuen laguntza eskatzeko, bizikidetza arauak eta zentzua erabilita arriskuak baztertu ditzagun:**

*Estimadas familias:*

*Según nuestros datos vosotros formáis parte de ese colectivo de familias que no son usuarias del servicio de transporte.*

*Os suponemos, habituales sufridores de los atascos que padecemos todos los días y observadores de las distintas situaciones de riesgo que viven vuestros hijos. Ante la imposibilidad material hoy por hoy de poder resolverlos, os enviamos esta nota para invitaros a que reflexionéis sobre la posibilidad de hacer uso del servicio de transporte.*

*Desconocemos cuales son las circunstancias por las que no lo usáis pero deseamos mediante esta carta recordaros que este servicio dispone de distintas condiciones de uso y que no es necesario el uso de los cuatro servicios diarios y que incluso se puede realizar de una forma previamente estipulada, uso de distintos recorridos y paradas en función de las necesidades que podáis tener.*

*Si el no uso proviene que residís en alguna zona a la cual no damos cobertura o a vuestro entender, la que damos es insuficiente, no dudéis en contactar con nosotros a través de* garraioa@olabide.com *para que, entre todos, tratemos de daros la mejor solución.*

*Desde estas líneas queremos solicitaros vuestra colaboración para que entre todos evitemos esas situaciones de riesgo respetando las normas de convivencia y el sentido común:*

IPF F0100836 6

**Olabide Ikastola, Koop. Elk.**
**Lasarte errepidea, z/g 01007 VITORIA-GASTEIZ**
**Tfno. 945011963 Faxa: 945130250**
www.olabide.com **emaila: posta@olabide.com**

***Zer eskatzen dizuegu zuen seme-alabak autoetan ekartzen jarraitzen baduzue? Bada, honakoen gainean hausnartzea:***

1. ***Hausnartu ea arauak betetzen dituzuen eta ea seme-alabak uzten dituzuenean ez duzuen zuen autoa hala-nola uzten, debekatutako lekuren batean aparkatzen ote duzuen edo ikasleak igotzeko eta jaisteko toki batean ez ote duzuen aparkatzen.***

2. ***Hausnartu ea zer gerta dakiekeen zuen seme-alabei ez badituzue toki seguru batean uzten, ea uzten ote dituzuen batere babesik gabe eskolako garraioari dagokion tokian edo aparkatutako autoen artean, gidariek ikusten ez dituztela.***

3. ***Hausnartu ea betetzen dituzuen Ikastolako langileek ematen dituzten aginduak. Zuen seme-alaben eta zuon zeuon segurtasunaz ari gara.***

***Gure eskaerak ulertuko dituzuelakoan eta lagundu eta hobekuntza proposamenak bidaliko dituzuelakoan, jaso ezazue gure agurrik beroena.***

*¿Qué os pedimos en el caso de que sigáis trayendo a los hijos e hijas en vuestros coches particulares? Reflexionar si,*

1. *Respetáis las normas y a la hora de dejar a vuestros hijos/as; no abandonáis vuestro vehículo de cualquier forma, obviando si aparcáis en un lugar autorizado o lo estáis haciendo en un lugar exclusivo de subida y bajada de alumnos.*

2. *Que puede sucederles a vuestros hijos si no los dejáis en un lugar seguro y se ven en la necesidad de cruzar totalmente indefensos por la zona reservada al transporte escolar o por entre coches aparcados y/o en movimiento y que, en la mayoría de los casos los conductores no pueden verlos dada su altura.*

3. *Respetéis las indicaciones que os pueda dar el personal de la Ikastola. Es por la seguridad de vuestros hijos y la vuestra propiamente.*

*En la confianza de que sabréis comprender nuestras demandas y esperando poder contar con vuestra colaboración y propuestas de mejora, recibid un cordial saludo*



**Izpna. Luis Muñiz Valles**
**Administraritza burua.-**

IPF F01008366

**Olabide Ikastola, Koop. Elk.**
**Lasarte errepidea, z/g 01007 VITORIA-GASTEIZ**
**Tfno. 945011963 Faxa: 945130250**
www.olabide.com **emaila: posta@olabide.com**